


Euskal AEko industria-prezioak % 0,8 jaitsi ziren 2020ko maiatzean, aurreko hilabetearekin alderatuta

2019ko maiatzarekin alderatuta, industria-prezioak % 5,4 jaitsi ziren

Euskal AEko industria-prezioak % 0,8 jaitsi ziren 2020ko maiatzean aurreko hilabetearekin alderatuta, Eustatek egindako datuen arabera. Maiatzeko urte arteko tasa, azken hamabi hilabeteetako industria-prezioen aldaketa jasotzen duena, -% 5,4koa izan zen.

Euskal AEko industria-prezioen indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Industria-prezioen indizea

Azterketa zehatzago batek agerian uzten du 2020ko maiatzean honako hauek izan direla prezioetan hazkunderik nabarmenenak izan dituzten sektoreak: *Kokeriak eta petrolioaren finantza* (% 1,3ko igoera), *Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta zapatagintza* (% 1,0ko igoera) eta *Industria Kimikoa eta Ura* (% 0,9 gora bietan). Aitzitik, prezioetan sektore hauetan izan dira hilabete arteko beherakadarik handienak: *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna* (% 4,3 behera), *Produktu informatikoak, elektronikoak eta optikoak* (% 2,5) eta *Metalurgia eta produktu metalikoak* (% 0,9).

Ondasunak helburu ekonomikoaren arabera sailkatuta, *Kontsumo-ondasunen* prezioak % 0,1 igo dira oro har, aurreko hilabetearekin alderatuta. Azken horien barruan, bai *Kontsumo-ondasun iraunkorren* prezioak, bai *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrenak* % 0,1 igo dira. Aitzitik, *Energia* % 2,2 jaitsi da, *Ekipo-ondasunak* % 0,7 eta *Bitarteko ondasunak* % 0,3.

Euskal AEko Industriako Prezioen Indizea. Aldakuntza-tasak (p). 2020ko Maiatza

	INDIZEA	ALDAKUNTZA %	
		2020mai / 2020api	2020mai / 2019mai
INDIZE OROKORRA	99,3	-0,8	-5,4
Sektore-banaketa			
Erauzketa industriak	109,4	0,0	5,7
Manufaktura-industria	100,2	-0,3	-5,3
Elikaduraren, edarien eta tabakoaren industria	104,0	0,0	0,8
Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta zapatagintza	112,2	1,0	12,1
Zurgintza, papera eta arte grafikoak	103,8	-0,2	-3,8
Kokeak eta petrolioaren fintzen	75,3	1,3	-37,1
Industria kimikoa	109,9	0,9	0,0
Botiken fabrikazioa	109,1	0,1	-0,9
Kautxu eta plastikoa, beste produktu mineral ez-metalezkoak	99,4	-0,2	0,8
Metalurgia eta produktu metalikoak	101,2	-0,9	-1,6
Informatikako, elektronikako eta optikako produktuen fabrikazioa	100,3	-2,5	0,0
Material eta ekipoen fabrikazioa	104,8	0,0	1,6
Beste inon sailkatu gabeko makineriaren eta ekipoen fabrikazioa	104,9	-0,5	-2,3
Garraiorako materialen fabrikazioa	107,5	-0,3	2,1
Altzariak, beste manufaktura-ind., konponketa eta instalazioak	106,3	-0,1	0,8
Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	93,4	-4,3	-6,6
Ura	110,3	0,9	3,1
Industria-sektore handien arabera			
Kontsumo-ondasunak	104,4	0,1	1,2
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	103,8	0,1	0,8
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	104,6	0,1	1,3
Ekipo-ondasunak	107,8	-0,7	0,4
Bitarteko ondasunak	101,6	-0,3	-1,1
Energia	83,9	-2,2	-24,2

Oinarria 2015=100

(p) Behin-behinekoak

Iturria: Eustat. Industria-prezioen indizea

Urtetik urterako datuei dagokienez, 2020ko maiatzetik 2019ko maiatzera, prezioen hazkunderik handienak honako adar hauetan izan dira: *Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta zapatagintza* (% 12,1eko igoera), *Erauzketa-industriak* (% 5,7ko hazkundera) eta *Ura* (% 3,1eko igoera). Alderantziz, prezioetan beherakadarik handienak sektore hauetan gertatu dira: *Kokeriak eta petrolioaren fintzea* (% 37,1 behera), *Energia elektrikoa, gasa, lurruna eta aire girotua* (% 6,6ko jaitsiera) eta *Zurgintza, papera eta arte grafikoak* (% 3,8 behera).

Helburu ekonomikoaren arabera ondaskuntza handien prezioen aldakuntza positiboa izan da urte arteko aldian *Ekipo-ondasunentzat*, % 0,4 igo direnak, eta *Kontsumo-ondasunentzat* oro har, % 1,2ko igoerarekin. Azken horien artean, % 1,3 igo dira *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorren* prezioak eta % 0,8 *Kontsumo-ondasun iraunkorrenak*. Aitzitik, prezioak jaitsi egin dira *Energiaren* sektorean (% 24,2ko jaitsierarekin) eta *Bitarteko ondasunenean* (% 1,1ekoa).

COVID-19AREN KRISIAK MAIATZEKO IPRI-N DUEN ERAGINARI BURUZKO OHARRA

Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak alarma-egoera deklaratu du **COVID-19ak** eragindako osasun-krisiaren egoera kudeatzeko.

Une horretatik aurrera hartutako salbuespenezko neurrien ondorioz, industria-enpresa asko partzialki edo osorik geldiarazi dira maiatzean.

Egoera horrek ekarri du Industria Prezioen Indizea eraikitzeke behar den informazioa lortzeko beharrezko ahalegina handitu izana, hala inkestatutako enpresen aldetik nola informazioa biltzeaz eta tratatzeaz arduratzen diren langileen aldetik.

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie lagundu duten enpresa guztiei egindako ahaleginagatik aparteko baldintza hauetan. Haiei esker, maiatzeko indizea laginaren % **98,63ko estaldurarekin** kalkulatu da (laginaren informazioa ekainean zehar jaso da).

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62